

EUSKADIN ETXEBIZITZA ESKURATZEA RI BURUZKO TXOSTENA, GENERO IKUSPEGITIK



ETX

ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

2022





ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



Emakumea
eta
etxebizitza

AURKIBIDEA

01.

ETXEBIZITZA ESKURATZEARI ERAGITEN DIOTEN JOERA
DEMOGRAFIKOAK 5

02.

ENPLEGUAREN ERAGINA ETXEBIZITZA ESKURATZEAN 9

03.

ETXEBIZITZA BEHARRA ETA ESKARIA 13
3.1. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra 14
3.2. Etxebizitza babestuaren eskaria EAEko
emakumeen artean 15

04.

BIZITEGI EMANTZIPAZIOAREN KOSTUA EUSKADIKO
EMAKUME GAZTEEN ARTEAN 17

05.

ETXEBIZITZA POLITIKAREN ERANTZUNA 21
5.1. Etxebizitza babestua eskuratzeko EAEko
emakumeen artean 22
5.2. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa
eta etxebizitza ordaintzeko prestazio-sistema 23
5.3. Gaztelagun programaren estaldura eta EAEko
emakume gazteak 23
5.4. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria 24
5.5. Etxeko tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten
dituzten emakumeei harrera hobea egiteko
erakundeen arteko akordioa 25

06.

ONDORIOAK 27

**ETX****ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA****OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY**

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa EAEko emakumeak, adin tartearen arabera. 2022 (biztanleria osoaren gaineko %)	6
2. grafikoa EAEko biztanleria, jaioterriaren arabera (emakumeak jatorriaren arabera). 2022/07/01.....	6
3. grafikoa Jaiotza-tasaren bilakaera, 1.000 biztanleko. Euskadi. 1975-2021. Espainiako eta Europako datuak. 2021.....	7
4. grafikoa EAEko biztanleria aktiboaren langabezia-tasak izandako bilakaera, sexuaren arabera. 2010-2022.....	10
5. grafikoa Gizonen eta emakumeen batez besteko soldata EAEn eta Espainian, 2008-2021	11
6. grafikoa. Lanaldi osoko kontratu mugagabea duen biztanleria okupatua, sexuaren arabera. 2022ko abendua. Pertsona kopurua (mila pertsona) eta pertsona okupatuen guztizkoaren gaineko %, sexuaren arabera.....	11
7. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua 2017-2021.....	14
8. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko pertsonak, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2019-2021. Pertsonak eta aldakuntza-tasak.....	14
9. grafikoa. Etxebizitza babestuen eskaeraren bilakaera, sexuaren arabera. 2016ko IV.HH.-2019ko IV.HH.*-2021eko IV.HH.-2023ko IV.HH.....	15
10. grafikoa. Sexu bakoitzaren eskarien pisu erlatiboa eskari guztien gainean, eskari-erregimenaren arabera.....	15
11. grafikoa. Eskaeren titularrak diren emakumeen pisu erlatiboa vs gizonen pisu erlatiboa, eskaera-erregimenaren arabera, urte bakoitzeko eskaera guztiekiko (2019, 2020*, 2021, 2023; IV.HH)	16
12. grafikoa. EAEn 2021ean etxebizitza libre bat jabetzan* eskuratzearen kostua, sexuaren arabera (%/soldata garbia).....	18
13. grafikoa. Etxebizitza librea erosteko gehieneko prezio onargarria EAEn 2021ean, sexuaren arabera (eurotan).....	18
14. grafikoa. EAEn 2021ean etxebizitza libre bat alokairuan eskuratzearen kostua, sexuaren arabera (%/soldata garbia).....	19
15. grafikoa. Etxebizitza libre bat alokatzeko gehieneko errenta onargarria EAEn 2021ean, sexuaren arabera (eurotan).....	19
16. grafikoa. Etxebizitza babestuen onarpenak 2019-2023 artean, eskuratzeko erregimenaren eta esleipendunen sexuaren arabera.....	22
17. grafikoa. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko programen onuradunak 2022an Euskadin, sexuaren arabera	22
18. grafikoa. Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren onuradunak Euskadin. 2021-2022.....	24
19. grafikoa. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen duten emakumeen eta gizonen kopuruak 2020ko martxoaren eta 2022ko abenduaren artean izandako bilakaera.....	25

Taulen aurkibidea

1. taula EB 27-ko jaiotza-tasa (biztanleen ‰) eta 2010-2021 aldakuntza	7
2. taula Jarduera-tasaren bilakaera adin-tartearen arabera, 2018-2022	10
3. taula Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboaren onuradunak diren emakumeen eta gizonen kopurua 2022ko abenduan eta xehetasunak, esleitzeko lehentasunaren, EPERen eta etxebizitza babestuaren esleipenen arabera. Euskadiko datuak eta lurralde historikoaren arabera	23
4. taula Gaztelagun programaren onuradunak, sexuaren arabera. 2022ko abendua.....	24



01.

ETXEBIZITZA ESKURATZEARI ERAGITEN DIOTEN JOERA DEMOGRAFIKOAK



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY


Azken bi hamarkadetako dinamika demografikoek erakusten dutenez, EAEko biztanleria modu progresiboan zahartzen ari da, immigrazioak ekarpen positiboa egin arren.

2022an 1.125.880 emakume zeuden EAEn erroldatuta, hau da, 2021ean baino 3.000 emakume gutxiago, gutxi gorabehera. EAEko biztanle guztien % 51,5 ziren emakumeak.

EAEko biztanleriaren adina handitzen den heinean, emakumeen pisu erlatiboa orduan eta handiagoa da. 70 urtetik aurrera, biztanleen % 54 baino gehiago dira emakumeak eta, 80 urtetik gorakoen artean, % 64. Hala, 102 mila emakumek 80 urte baino gehiago dituzte EAEn.

Joera horrek ondorio konplexuak ditu gizarte-politikak eta etxebizitza-politikak kudeatzeko orduan, esaterako: gero eta adineko emakume gehiago bizi dira bakarrik, eta horri erantzuna eman behar zaio; etxebizitzak ez daude pertsona horien behar espezifikoetara behar bezala egokituta; eta eskuragarritasun-politikak, birgaitze osoak eta abar sustatu behar dira. Horrek emakume horien bizi kalitateari eragiten dio.


1. grafikoa EAEko emakumeak, adin tartearen arabera. 2022 (biztanleria osoaren gaineko %)



Iturria: Eustat

Bestetik, datu demografiko interesgarri gisa, emakumeen pisu erlatiboa handiagoa da etorkinen artean, bai Estatuko beste probintzia batzuetatik etorritako pertsonen artean (Estatuko beste probintzia batzuetan jaio diren pertsonen % 55,5), bai atzerritik etorritakoen artean (Espainiatik kanpo jaioetako pertsonen % 52). Euskadin jaioetako biztanleria osoaren gainean, berriz, % 50,4 dira emakumeak.

2. grafikoa EAEko biztanleria, jaioeterraren arabera (emakumeak jatorriaren arabera). 2022/07/01




Iturria: Eustat

Jaiotza-tasak jaisten jarraitzen du, atzeritik etorritako biztanleek ekarpen positiboa egin arren.

Jaiotza-tasa nabarmen jaitsi da azken hamarkadan, eta horrek lehen etxebizitza eskuratzeko beharrari eragingo dio datozen urteetan, zalantzarik gabe. Europako jaiotza-tasarik baxuenetakoa izaten jarraitzen du EAEk.

3. grafikoa Jaiotza-tasaren bilakaera, 1.000 biztanleko. Euskadi. 1975-2021. Espainiako eta Europako datuak. 2021



Iturria: Eustat

1. taula EB 27-ko jaiotza-tasa (biztanleen %) eta 2010-2021 aldakuntza

	2010	2021	
EB 27	10,4	9,1	-1,3
Alemania	8,3	9,6	1,3
Austria	9,4	9,6	0,2
Belgika	11,9	10,2	-1,7
Bulgaria	10,2	8,5	-1,7
Zipre	11,8	11,3	-0,5
Kroazia	10,1	9,2	-0,9
Danimarka	11,4	10,8	-0,6
Eslovakia	11,2	10,4	-0,8
Eslovenia	10,9	9,0	-1,9
Espainia	10,4	7,1	-3,3
Estonia	11,9	10,0	-1,9
Finlandia	11,4	9,0	-2,4
Frantzia	12,9	10,9	-2
Grezia	10,3	8,0	-2,3
Hungaria	9,0	9,7	0,7
Irlanda	16,5	11,6	-4,9
Italia	9,5	6,8	-2,7
Letonia	9,4	9,2	-0,2
Lituania	9,9	8,3	-1,6
Luxenburgo	11,6	10,5	-1,1
Malta	9,4	8,5	-0,9
Herbehereak	11,1	10,2	-0,9
Polonia	10,9	8,8	-2,1
Portugal	9,6	7,7	-1,9
Txekiar Errepublika	11,2	10,6	-0,6
Errumania	10,5	9,3	-1,2
Suedia	12,3	11,0	-1,3
Euskadi	9,7	6,5	-3,2

Iturria: Eustat



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



02. ENPLEGUAREN ERAGINA ETXEBIZITZA ESKURATZEAN




Jarduera tasak nabarmen baxuagoa izaten jarraitzen du emakumeen artean.

Lan egiteko adinean dauden emakumeen jarduera-tasak (% 52) urruti jarraitzen du gizonen jarduera-tasatik (% 61). Hain zuzen ere, alde hori ia ez da aldatu azken 10 urteetan. Hala, emakumeen jarduera-tasak % 52an jarraitzen du, geldi, 2014tik. Hortaz, Atzeraldi Handiaren osteko suspertze ekonomikoak ez zuen eragin positiborik izan emakumeak lan-merkatuan txertatzeari dagokionez.


Dena den, **emakumeen langabezia-tasa gizonena baino hamarren batzuk handiagoa besterik ez da.** Pandemiaren inpaktua amaitu ondoren, emakumeen langabezia-tasak hobera egiten jarraitu zuen eta biztanleria aktiboaren % 9ra arte jaitsi zen. Azken hamabi urteetako erregistrorik onena.

4. grafikoa EAEko biztanleria aktiboaren langabezia-tasak izandako bilakaera, sexuaren arabera. 2010-2022

Jarduera-tasa



Langabezia-tasa



Iturria: BJA Eustat

2. taula Jarduera-tasaren bilakaera adin-tartearen arabera, 2018-2022

	16-24 urte		25-44 urte		45 urte edo gehiago	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
2018	26,6	29,6	93,0	86,7	51,5	39,5
2019	27,2	29,0	92,9	87,6	51,5	40,3
2020	29,9	28,6	91,2	86,2	51,0	39,8
2021	31,6	28,9	91,2	84,5	51,8	42,0
2022	33,2	28,3	91,4	85,2	52,4	42,2

Iturria: BJA Eustat

Azken urteetan murriztu egin bada ere, soldata-arrakalak handi samarra izaten jarraitzen du, eta horrek zaildu egiten du soldatapeko emakumeek etxebizitza bat eskuratu ahal izatea.

EAEko soldata-arrakalak nabarmena izaten jarraitzen du. EINek soldata-egiturari buruz emandako datuen arabera, urteko 5.600 euroko aldea dago soldatapeko gizonen batez besteko irabazien (33 mila euro urtean) eta soldatapeko emakumeen batez besteko irabazien (28 mila euro urtean) artean. Emakumeei kalte egiten dien alde hori murrizten ari da azken urteetan. 2008an ia 6.500 eurokoa zen aldea.

5. grafikoa Gizonen eta emakumeen batez besteko soldata EAEn eta Espainian, 2008-2021



Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen artean, emakumeek gizonen baino pisu txikiagoa dute enplegu mugagabea eta lanaldi osoko modalitateetan eta, neurri handi batean, horrek azaltzen du emakumeek diru-sarrera baxuagoak izatea. Gizarte Segurantzako Diruzaintzak 2022ko abenduan emandako datuen arabera, afiliatutako emakumeen % 42k bakarrik (gizonen kasuan baino ehuneko 25 puntu gutxiago) dute lanaldi osoko kontratu mugagabea.

6. grafikoa. Lanaldi osoko kontratu mugagabea duen biztanleria okupatua, sexuaren arabera. 2022ko abendua. Pertsona kopurua (mila pertsona) eta pertsona okupatuen gutzizkoaren gaineko %, sexuaren arabera.





ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



03.


ETXEBIZITZA BEHARRA ETA ESKARIA



3.1. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko azken inkestaren arabera, 2021ean 18 eta 44 urte arteko 30.556 emakumek zuten lehen etxebizitza eskuratzeko beharra, 2019an baino % 4,4 gehiagok.

7. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko emakumeen eta gizonen bilakaera konparatua 2017-2021




Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.

Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten emakumeen kopuruak gora egin badu ere, murriztu egin da behar hori asetzeko behar adinako diru-sarrerak dituztenen kopurua

Dena den, emakume horietako gehienek ez dute diru-sarrera egonkorrik edo nahikorik datozen urteetan etxebizitza bat erosi ahal izateko. 9.189 emakumek bakarrik adierazi dute horretarako behar adinako diru-sarrerak dituztela, hau da, 2019an baino % 13 gutxiagok.

8. grafikoa. Lehen etxebizitza eskuratzeko beharra duten 18-44 urte arteko pertsonak, diru-sarreraren eta sexuaren arabera. 2019-2021. Pertsonak eta aldakuntza-tasak



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.


3.2. Etxebizitza babestuaren eskaria EAEko emakumeen artean

Alokairuko etxebizitza babestuaren eskariari dagokionez, gehienak emakumeak dira

Etxebiden izena emanda dauden etxebizitza babestuaren eskatzaileen azken datuek erakusten dutenez, egonkortu egin da aurreko urteetako eskarien joera gorakorra.

Dena den, Etxebiden titular gisa izena emanda dauden emakumeek egiten duten eskari kopuruak oso maila altuan jarraitzen du. 2023aren erdialdean alokairuko eskarien titularrak ziren 26.221 emakume, eta erosteko eskarien titularrak 6.831 emakume. Alokairuaren kasuan, gizonezkoen eskaria baino askoz ere handiagoa da emakumeena.


9. grafikoa. Etxebizitza babestuen eskaeraren bilakaera, sexuaren arabera. 2016ko IV.HH.-2019ko IV.HH.*-2021eko IV.HH.-2023ko IV.HH.



* titular gisa emakume bat bakarrik edo gizon bat bakarrik duten eskaerak
Iturria: Etxebide

Emakumeak titular bakar gisa ageri diren hamar eskaritik zortzi alokairu babesturako eskariak dira. Gizonen kasuan, proportzio hori apur bat baxuagoa da (% 75). Alokairu-eskaeraren intzidentzia emakumeen artean handiagoa izatea bat dator emakumeen egoera ekonomikoa okerragoa izatearekin, eta etxebizitza bat arrazoizko prezio batean eskuratzeko duten zailtasun handiagoarekin.

10. grafikoa. Sexu bakoitzaren eskarien pisu erlatiboa eskari guztien gainean, eskari-erregimenaren arabera



* titular gisa emakume bat bakarrik edo gizon bat bakarrik duten eskaerak
Iturria: Etxebide




ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Etxebiden egindako alokairu-eskaeren % 43,9tan emakume bat bakarrik da eskaeraren titularra, gizonen kasuan baino 9,6 puntu gehiago (% 34,3). Erosketa-erregimenari dagokion eskarian, aldeak txikiagoak dira.

11. grafikoa. Eskaeren titularrak diren emakumeen pisu erlatiboa vs gizonen pisu erlatiboa, eskaera-erregimenaren arabera, urte bakoitzeko eskaera guztiekiko (2019, 2020*, 2021, 2023; IV.HH)



* titular gisa emakume bat bakarrik edo gizon bat bakarrik duten eskaerak. Gainerako eskaeretan bi sexuak dira titularrak.

Iturria: Etxebide



04. BIZITEGI EMANTZIPAZIOAREN KOSTUA EUSKADIKO EMAKUME GAZTEEN ARTEAN



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA


OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak 18 eta 34 urte arteko gazteen emantzipazio-kostuari buruzko txostena argitaratzen du urtero. Txostenak egiturazko joera erakusten du: EAEko gazteentzat gehiegizko kostua du etxebizitza bat eskuratzeak, bai erosita, bai alokairuan. Izan eren, gazteen batez besteko diru-sarreraren % 30ekoa baino handiagoa da kostua.

Jabetzan edo alokairuan etxebizitza bat eskuratzeak kostu handiagoa du EAEko emakume gazteentzat.

Gainera, txosten horren arabera, emantzipatzea eta etxebizitza bat eskuratzea zailagoa da emakume gazteentzat, gizon gazteentzat baino. **Etxebizitza bat jabetzan eskuratzeko, emakume gazteek haien batez besteko diru-sarreraren % 57 erabili beharko lukete EAEko etxebizitza libre baten batez besteko prezioa ordaindu ahal izateko.** Gizon gazteen kasuan % 51koa da batez besteko kostua, emakumeen kasuan baino 6 puntu baxuagoa.

12. grafikoa. EAEn 2021ean etxebizitza libre bat jabetzan* eskuratzearen kostua, sexuaren arabera (%/soldata garbia)




*18 eta 34 urte bitarteko soldatadun gazte batek, berak bakarrik, merkatu librean etxebizitza bat (pisu berriak eta bigarren eskukoak, zein familia bakarreko etxebizitzak barne) eskuratzeko hipoteka-mailagaren lehen kuota ordaintzera bideratu beharko lukeen hileko soldata garbiaren ehunekoa, notarioaren aurrean eskrituratutako batez besteko salerosketa-prezioen arabera.

Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

Hain zuzen ere, emakume gazteen batez besteko soldatarekin, batez besteko 119 mila euroko prezioa duen etxebizitza bat erosi ahal izango lukete, eta hori oso urruti dago EAEko etxebizitza libre batez besteko prezioetik, baita azalera-eskubideko babestutako etxebizitza baten batez besteko prezioetik ere. Gizonen kasuan, gehieneko prezioa apur bat altuagoa da, 133 mila eurokoa.

13. grafikoa. Etxebizitza librea erosteko gehieneko prezio onargarria EAEn 2021ean, sexuaren arabera (eurotan)




*Etxebizitza libre berri batek edo bigarren eskuko batek izan behar lukeen prezioa, hura erosteko hipoteka-mailagu baten lehenengo kuota 18 eta 34 urte arteko soldatapeko pertsona gazte baten hileko soldata garbiaren % 30ekoa izan dadin, gehienez.

Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

Alokairu libreko etxebizitza eskuratzeari dagokionez, **soldatapeko emakumeek etxebizitzaren batez besteko errenta ordaintzeko egiten duten ahalegin ekonomikoa % 30ekoa baino askoz ere altuagoa da EAEn; hain zuzen ere, bikoitza da tasa, % 59koa.** Gizon gazteen kasuan ere oso altua da tasa (% 51), baina emakumeena baino zerbitu baxuagoa.


14. grafikoa. EAEn 2021ean etxebizitza libre bat alokairuan eskuratzearen kostua, sexuaren arabera (%/soldata garbia)



Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia

Gauzak hala, EAEko emakume gazte batek % 30eko ahalegin ekonomikoa gainditu gabe ordaindu dezakeen gehieneko alokairu-errenta, batez beste, hileko 388 eurokoa da. Batez besteko errenta hori baxuagoa da EAEko udalerri guztietako batez besteko errenta baino, eta bereziki urruti dago Donostiako eta Bilboko metropoli eremuetako udalerrietako etxebizitzaren batez besteko errentatik. Hain zuzen ere, Etxebiden erregistratutako alokairu babesturako eskariak eremu horretan metatzen dira. Hortaz, **emakume gazte horientzat, etxebizitza bat eskuratzeko irtenbidea alokairu babestuko etxebizitza bat eskuratzeari izango litzateke, edo etxebizitza beste pertsona batzuekin partekatzea.**

15. grafikoa. Etxebizitza libre bat alokatzeko gehieneko errenta onargarria EAEn 2021ean, sexuaren arabera (eurotan)



*Alokairuko etxebizitza libreak izan behar lukeen errenta, 18 eta 34 urte arteko soldatapeko pertsona gazte batek, gehienez ere, haren hileko soldata garbiaren % 30 bidera dezan hura ordaintzera.

Iturria: Gazteriaren Euskal Behatokia



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



05. ETXEBIZITZA POLITIKAREN ERANTZUNA


5.1. Etxebizitza babestua eskuratzea EAEko emakumeen artean

Etxebizitza babestua eskuratzen duten emakumeen kopurua nabarmen igo zen 2022an.

Eusko Jaurlaritzak urteak daramatza baliabide gutxien dituzten pertsonen etxebizitza eskuratzen laguntzeko estrategia garatzen, alokairu babestuaren aldeko apustuan oinarrituta. Horrek erraztu egiten du emakumeek etxebizitza eskuratzea, Etxebiden izena emandako emakumeen batez besteko diru-sarrerak baxuagoak baitira gizonenak baino.

2022az geroztik erregistratutako alokairu babestuko kontratuen 2.736 onarpenetan emakumeak ageri dira titular gisa. Kopuru hori asko hazi da 2021etik (2.211 onarpen; % 23,9ko hazkundea) eta pandemiaren aurreko maila ere gainditu du (2019an 2.660 onarpen).

16. grafikoa. Etxebizitza babestuen onarpenak 2019-2023 artean, eskuratzeko erregimenaren eta esleipendunen sexuaren arabera



*Ez ditu barne hartzen titularren sexua adierazten ez duten onarpenak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

Halaber, onarpen horien arabera, 2022an etxebizitza babestua eskuratu zuten emakumeen kopurua askoz ere handiagoa da gizonena baino: 2.736 eta 2.145 onarpen, hurrenez hurren. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko programen bidez (adibidez, Bizigune eta ASAP), Etxebiden izena emandako emakumeek arrazoizko prezioan eskuratu ahal izan dute alokairuko etxebizitza. 2022an 129 emakumek eskuratu zuten etxebizitza ASAP programaren baitan, eta 604 emakumek Bizigune programaren baitan.

17. grafikoa. Etxebizitza hutsak mobilizatzeko programen onuradunak 2022an Euskadin, sexuaren arabera



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

5.2. Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa eta etxebizitza ordaintzeko prestazio-sistema

Jakina den moduan, Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa onartzen du Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak. Etxebiden izena emanda dauden eta gehieneko errenta maila bat duten onuradun potentzialei alokairuko etxebizitza babestu bat eskuratzeko aukera ematen die eskubide hori aitortzeak; etxebizitzarik eskuragarri ez badago, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa jasotzeko aukera ematen die.

2022an 4.709 emakumeri aitortu zieten eskubide hori, hau da, hiru onuradunetik biri

Eskubide hori egikaritzearen bidez, 2022ko abendura arte 1.306 emakumeri esleitu zieten alokairu babestuko etxebizitza, eta 2.188 emakumeri lehentasuna aitortu zieten etorkizunean alokairu babestuko etxebizitza bat esleitzeko. Halaber, 1.215 emakume izan ziren Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoaren onuradunak.

3. taula Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboaren onuradunak diren emakumeen eta gizonen kopurua 2022ko abenduan eta xehetasunak, esleitzeko lehentasunaren, EPEren eta etxebizitza babestuaren esleipenen arabera. Euskadiko datuak eta lurralde historikoaren arabera

	Emakumea				Gizona				Guztira, orokorra
	Esleitzeko lehentasuna	EPE	Etxebizitza-esleipena	Emakumeak, guztira	Esleitzeko lehentasuna	EPE	Etxebizitza-esleipena	Gizonak guztira	
Araba	411	63	254	728	337	41	271	649	1.377
Bizkaia	1.588	940	753	3.281	790	302	397	1.489	4.770
Gipuzkoa	189	212	299	700	143	116	212	471	1.171
Guztira	2.188	1.215	1.306	4.709	1.270	459	880	2.609	7.318

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

5.3. Gaztelagun programaren estaldura eta EAEko emakume gazteak

Martxan jarri zenetik, EAEko emakume gazteak izan dira Gaztelagun programaren onuradun nagusiak

Gaztelagun programaren estaldurak hazten jarraitzen du. 2021ean 2.469 laguntza eman ziren eta 2022an 3.923; hau da, % 58 gehiago (2023ko ekainean programaren gazte onuradunak 6.000 baino gehiago ziren; hortaz, hazkunde-erritmoak altua izaten jarraitzen du).

Gaztelagun programaren estaldura bereziki handia da emakume gazteen artean, horiek baitira onuradun nagusiak. 2022aren amaieran, 2.258 onuradun emakumeak ziren, eta 1.660 gizonak.



4. taula Gaztelagun programaren onuradunak, sexuaren arabera. 2022ko abendua

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi
Gizona	274	929	457	1.660
Emakumea	413	1.116	729	2.258
Daturik ez		3	2	5
Guztira	687	2.048	1.188	3.923

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila

5.4. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria


Egoera ekonomikoa eta lan-merkatua hobetu izanaren ondorioz, Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) onuradun kopurua % 7,2 murriztu zen 2022aren amaieran.

Dena den, **2022ko abenduan 12.421 emakume ziren EPOren onuradunak**. Onuradun guztien % 52,8 ziren emakumeak, 2021ean baino ehuneko puntu bat gutxiago, ia (% 53,7).


Horrek erakusten du emakumeek zailtasun handiagoak dituztela alokairuko etxebizitza bat ordaintzeko; izan ere, bizileku-bazterkeriako egoeran daude, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria ere jasotzen baitute.

18. grafikoa. Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren onuradunak Euskadin. 2021-2022

2021




2022



Iturria: Lanbide

19. grafikoa. Etxebizitzarako Prestazio Osagarria jasotzen duten emakumeen eta gizonen kopuruak 2020ko martxoaren eta 2022ko abenduaren artean izandako bilakaera



Iturria: Lanbide

5.5. Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko akordioa

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak, etxebizitza arlotik tratu txarrak eta indarkeria sexuala jasan duten emakume biktimei laguntzera bideratutako berariazko tratamendua eta arreta ditu txertatuta haren etxebizitza-politikan.

Arreta-politika horrek 2022an izandako emaitzak honako adierazleen bidez zehaztu daitezke:

a. Etxebide Etxebizitza babestuaren eskariak

- Genero-indarkeriaren biktimak ziren 1.290 emakume agertzen ziren Etxebideren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan, alta egoeran. Horietatik, 308 eskari berriak ziren.

b. Etxebizitza babestuaren esleipenak

- Genero-indarkeriaren biktimak ziren 79 emakumeri eta haien seme-alabei babes publikoko etxebizitza bat edo baliokideren bat esleitu zieten 2021ean.
- Esleipen, baremazio eta lehentasunezko kupoen prozedura arruntaren bidez, 22 etxebizitza esleitu zaizkie genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeei. Eta, aparteko prozeduraren edo zuzeneko esleipenaren bidez, 57 esleitu dira.



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY



06. ONDORIOAK



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY

Indarrean dagoen Etxebizitza Gida Planak (2021-2023) jasotzen duen moduan, etxebizitza babestua eskuratzeko orduan ekitatea eta berdintasuna bermatzen duten politikak garatzeko konpromisoa du Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailburuordetzak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren bidez, eta konpromiso horri erantzuten dioten urteroko txostenen baitan kokatzen da dokumentu hau.

Gida Plan horrek eta 2022-2036 aldirako Etxebizitzaren Aldeko Itun Sozialak etxebizitzaren arrazoizko alokairua sustatzera bideratzen ditu baliabide gehienak, eresketa sustatzen duten politiken aurrean. Politika horrek emakumeei egiten die mesede neurri handiagoan, haien abiapuntuko egoera okerragoa baita, txosten honetan zehaztu dugun moduan. Beste arlo batzuetako neurriak (adibidez, zerga arlokoak) sendotzeak ere lagun dezake emakumeek etxebizitza eskura dezaten, esaterako, alokairuari pizgarri handiagoak emanez erosketari baino.

Emakumeek lan-merkatuan duten egoerari buruzko adierazle nagusiek erakusten dutenez, emakumeen egoera okerragoa da, bereziki, lan-merkatuan presentzia txikiagoa dutelako (% 52ko jarduera-tasa, gizonena baino 9 puntu baxuagoa) eta lanaldi osoko enplegu mugagabearen intzidentzia txikiagoa delako emakumeen artean.

Lan-prekarietate handiago horren ondorioa soldata-arrakalan ikus daiteke. EAEko eta Espainiako lan-merkatuaren egiturazko arazoa da soldata-arrakala. 2021ean soldata-estatistikei buruz argitaratutako azken informazioaren arabera, Euskadin baxuagoa da soldatapeko emakumeen batez besteko soldata. Azken urteetan egoera hobetu bada ere, soldatapeko gizonen eta emakumeen batez besteko soldaten arteko aldea, hau da, soldata-arrakala, 5.700 eurokoa da; emakumeen urteko batez besteko soldata 28.000 eurokoa da.

Hala, Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko inkestaren azken datuen arabera, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra dutela adierazi duten 30.556 emakumeen artetik, lautik batek bakarrik ditu behar horri aurre egin ahal izateko diru-sarrerak.

Bestetik, azken urteetan etengabe hazi da etxebizitza babestuaren eskaria, baina azken urte eta erdian gelditu egin da. Dena den, 2023aren erdialdean oso maila altuan jarraitzen du, bereziki, alokairu babestuaren kasuan. Guztira, 26.221 emakume dira alokairu-eskaeren titularrak eta 6.831 emakume eresketa-eskaeren titularrak. Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren orain dela gutxiko txosten batek aztertzen duen moduan, emakume horietako gehienak emantzipatuta daude eta alokairu libreko etxebizitzetan bizi dira; hala, ahalegin ekonomiko handia egiten dute errenta ordaintzeko.

Etxebizitza-politika egoera hori arintzen saiatzen da, Horretarako, diru-sarrera baxuak dituzten pertsonen etxebizitza babestua eskuratzen laguntzen die, Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboa aitortzen du eta prestazio-sistema zabala eskaintzen du alokairuko etxebizitza ordaindu ahal izateko.

Gauzak hala, bizileku-bazterkeriatik gertuko egoeretan dauden emakumeen beharrei emandako erantzuna Etxebizitza Eskuratzeko Eskubide Subjektiboan ardazten da. Orain arte 7.318 pertsonari aitortu diete eskubide hori; hirutik bi emakumeak dira; guztira, 4.709 emakume.

Alokairuko etxebizitza babestua sustatzeko politikaren ondorioz, 2022an nabarmen ugaitu ziren esleipenak. Emakumeen kasuan, urte horretan sinatutako salerosketa-kontratuen edo alokairu-kontratuen onarpenetan 2.736 emakume agertzen ziren titular bakar gisa, gehienak alokairu erregimenean. Esleitutako etxebizitzaren titularrak diren gizonen kopurua, berriz, % 27,5 baxuagoa da, gutxi gorabehera. Alokairuko etxebizitza babestua eskuratzeko baremazioak etxebizitza eskuratzeari errazten die diru-sarrera gutxien dituzten pertsona eta familia-unitateei; horiek, gehienbat, emakumeak izaten dira.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) da bazterkeria-arriskuan dauden emakumeei estaldura handiena ematen dien alokairua ordaintzeko prestazioa. Egoera ekonomikoa hobetu izanaren ondorioz, emakume onuradunen kopurua % 7,2 murriztu da, baina oraindik ere adierazgarria da kopurua. Hala, 12.421 emakumek 300 euroko prestazioa jasotzen zuten 2022aren amaieran, alokairuko etxebizitza ordaintzeko.

Gaztelagun programaren estaldura bereziki handia da emakume gazteen artean, horiek baitira onuradun nagusiak. 2022aren amaieran, 2.258 onuradun emakumeak ziren, eta 1.660 gizonak.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak berariazko arreta eskaintzen die tratatu txarren eta indarkeria sexualaren biktimak diren emakumeei. 2022an, genero-indarkeriaren biktimak ziren 79 emakumeri eta haien seme-alabei babes publikoko etxebizitza bat edo baliokideren bat esleitu zieten.



Emakumea
eta
etxebizitza



ETXEBIZITZAREN
EUSKAL
BEHATOKIA

OBSERVATORIO
VASCO DE LA
VIVIENDA / BASQUE
HOUSING OBSERVATORY